

## PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

### AUTOEBALUAZIOA

#### ERANTZUN HURRENGO GALDERAK:

#### PRAKTIKAK

1. **Zein da autoitsaskorra den benda porotsua?**
  - a) Crepé benda.
  - b) Harizko benda
  - c) Igeltsua
  - d) Velban
  - e) Tensoplast.
  
2. **Bendaien indikazioen artean zein ez da zuzena?**
  - a) Presio eragitea.
  - b) Ferulak eta apositoak finkatzea.
  - c) Trakzio aparatuak finkatzen laguntzea.
  - d) Mindutako aldearen mogimendua mugatzea.
  - e) Guztiak zuzenak dira.
  
3. **Nola deitzen da orratz kurbaduna (eta zetazko haria) eusteko eta sutura egiteko erabiltzen den tresna?**
  - a) Grapagailua
  - b) Bisturi orria
  - c) Hortzik gabeko disezio pintza.
  - d) Porta
  - e) Horzdun disezio pintza.
  
4. **Sutura bat egiteko materialeen artean zein ez da ageri?**
  - a) Antiseptikoa.
  - b) Porta.
  - c) Grapa kentzailea.
  - d) Gasa esterilak.
  - e) Artaziak.

- 5. Bihotz biriki berpizteari dagokionez, aukera ezazu erantzun okerra:**
- a) sakada aireztapen erritmoa 30:2-koa da.
  - b) Gaixoak konortetik gabe arnasten ez badu, segurtasuneko jarreran ipiniko dugu.
  - c) Arnas bidea zabaltzeko erabiltzen den maniobretako bat kopeta-kokotsekoa da.
  - d) Oinarrizko bihotz biriki berpiztean ez dugu desfibrilaziorik emango.
  - e) Bihotz sakadak bular erdian eman behar dira, bularra 5 zm beheratuz.
- 6. Bihotz biriki geldiketa baten zioak identifikatu:**
- a) Bentrinkulu fibrilazioa.
  - b) Asistolia.
  - c) Shock hipobolemikoa.
  - d) b eta c.
  - e) Guztiak zuzenak dira.
- 7. Pazientearen higiena eta ohea egiterakoan azal daitekeen konplikazioa da:**
- a) Pazientearen mina
  - b) Pazientearen disnea
  - c) Erorketak
  - d) Erantzun guztiak izan daitezke konplikazioak
- 8. Zeintzuk dira dekubito supinoan jarrita dagoen pertsona batean presiozko ultzerak azal daitezkeen leku anatomikoak?**
- a) Burua, belaunak, maleoloak
  - b) Burua, sakroa, orpoak, ipurmasailak
  - c) Ukondoak, klavikula, maleoloak
  - d) Ukondoak, burua, maleoloak, belaunak

**ERANTZUNAK:**

- 1.e**
- 2.e**
- 3.d**
- 4.c**
- 5.b**
- 6.e**
- 7.d**
- 8.b**